

«Langile mugimendua berez da korala, nahiz eta koroetan bezala badauden bakarlariak, baina beti taldearen partaide bezala»

Joxe Iriarte, *Bikila*



Arnas luzeko proiektua da hau, noiz hasi zinen idazten?

2003an, *Iraultzen maratoia* eleberria argitaratu eta handik gutxira ekin nion idazteari. Jakin izan banu zein ataka gaitzean sartzen nintzen! 15 urte guztira. Abenturak kontatu nahi nituen eta benetako abentura idazketa bera izan da! Kontuan izan, ni ez naizela idazle profesionala, are, ez naiz idazlea zentzu estriktoan. Ezin naiz egitasmo batean buru belarri sartu eta sei hilabete edo pare bat urte idazten eman. Ni literaturazale amorratua naiz eta idaztea atsegin duen pertsona baina, batez ere, militante politikoa naiz eta horrek baldintzatzen du nire produkzioa, literaturarako oso tarte eskasa utziz.

Funtsean, zer kontatu nahi zenuen?

Literatura arloan langile mugimenduen historiak eta istorioek askotarako eman dute eta eman lezakete. Hortxe daude Gorkiren *Ama* edo Zolaren *Germinal*, adibidez. Zoritxarrez, XIX. eta XX. mendeetan ez bezala, gaur egun tematika hori ez dago modan. Eta ez da izango interesik ez duelako! Baina *demode* edo boladaz kanpokoak jotzen da eta horrek sutan jartzen nau. Une batez, iruditu zitzaidan, nik ez banuen ekiten lan hori beste inork, edo inor gutxik, ekingo ziola. Zoritxarrez, hala izan da. Nahiko nuke nik baino talentu gehiago duen batek segida hartuko balio eta,

gatazkaren inguruan gertatu den bezala, langile mugimenduan oinarrituriko obra bikain bat buruko balu. Zer kontatu dudat? Nire bizitzaren zati bat deskribatu dut, oso modu subjektiboan, jakina. Lehen lerroan bizi nuen esperientzia baten autobiografia da, 1979an bukatzen dena. Harrez geroztik, borroka garrantzitsuenetan inplikaturik egon naiz baina beste maila batean. Bilbora itzuli eta ezagutu nuen Nervaceroko borroka, zein ezker muturreko militante batzuk protagonismo itzela izan zuten, horietako batzuk kide izan ditut azken urteetan; gauza bera Euskaldu-na ontziolaren borrokan ibilitakoe-kin. Klase borrokan oinarrituriko ezkerreko militantzia mundu aberatsa eta oparora da, kontraesan bezala, oso gutxi ezagutua, askotan erredikulizatua, eta literaturarako asko eman dezakeena.

Nobela korala da *Kamaradak*. Ezin bestela izan?

Hala da. Agian beste eremu eta esparru batzuetan heroiak -eta traidoreak- asko nabarmentzen dira baina langile mugimendua berez da korala, nahiz eta koroetan bezala badauden bakarlariak, taldetik nabarmentzen direnak baina beti taldearen partaide bezala. Adibide bat dugu Periko Solabarria; bakarra, eredu, baina bere ingurutik at imajinatzen zaila. Hortik izenburua ere, *Kamaradak*. Proiektu, borroka edo

bizimodu bat konpartitzen duten lagunak dira kamaradak. Kamarada bereziak, bitxi samarrak, desadostasunak desadostasun, bizitzak urrunditu edo hurbildu eta adiskide izaten jarraitzeko gai izan direnak.

Flash back eta flash forward-en bidez egin da dago kontakizuna.

Markos Zapianek zera esan zuen: «memoria den mundu frangmentario horretatik, bizitakoaren eta sentitutakoaren aztertutik eraiki beharko du nobelagileak bere mundu imajinarioa». Arrazoia du, norberak bizi izandakoak edo imajinatutakoak gutxitan gogoratzen dituztu erlojuaren logika jarraituta edo egutegi batean bezala. Gehienetan zatika oroitzen dituztu, aldizka, batzuetan atzekoz aurrera, bestetan alderantziz. Eleberri honetan, asmatutako pasarteak, gertakizunak eta narrazioak mosaiko moduan kokatu ditut, beti ere koherentzia baten barruan eta elkar loturik.

1971, 1978, 1980, 1985, 1992... Arantxa, Mikel, Joseba, Ainhoa eta Aitorrentzat data garrantzitsuak ala Bikilarentzat?

Data batzuk oso garrantzitsuak zaizkit. Adibidez, 1978koa, Iruñean German laguna hil zutenean. Hala ere, batez ere, fikzioarekin jokatu dut eta asmatutako pertsonaia bakoitzari edo gertakizunei lekietan data atxikitu diet.

Aitor idealistaren hitzak: «Kapitala jaun eta jabe! Eta langileria inoiz baino zatikatuago, ahulago, zapuztuago». Hala da?

Tira, hitz horiek testuinguru batean esaten dira, eztabaida baten erdian. Hala ere eta zoritxarrez, askotan hala da. Esate baterako, euskal sindikal-gintzak ez du bizi une gozoena batasunari dagokionez. Oro har, langileria neoliberalismoaz kutsatu da. Krisia da horren adibide. Gainditu da, baina aurreko aroa da amets, non dena zen demasia, espekulazioa eta kontsumismo itzela baina, hori bai, soldata eta lanpostu onekin. Baina hori jada ez da posible izango, aldaketa klimatikoak eta krisi sistemikoak beste modura bizitzera behartuko gaituz-

telako. Beraz, langileriak batasuna behar du eta, aldi berean, burgesia- ren atzaparretik ihes egitea, buruz eta bihotzez.

Errenteriarra izateko oso eleberri bilbotarra egin duzu, ezta?

Hala da. Eta ez kasualitatez. Autobiografia dela (*Borrokaren gorrian*) edo historia dela (*Orereta Herri borrokalariaren historia*) nahikoa idatzi dut nire sor-terriaz. Banuen gogoia Bilbo aldera ihes egiteko. Alde batetik, nire mili- tantziaren zati handi bat bertan gau- zatu dudalako, bai frankismo garaian zein trantsizioan. Eta, batez ere, fik- ziorako Bilbo (edo bere eremu zabala)

dugulako gure hiri (buru edo ez buru) aproposena. Inor gutxietsi gabe, ber- tan izan dira langile gatazka harriga- rrienak, euskal langile mugimendu potente eta epikoena (agian ez poli- tizatuena, segur aski, Errenteriako inguruko langileak gehiago inplikatu ziren politikan). Beraz, han jarri behar nuen nire irudimena. Bestal- detik, langile mugimenduaren ondo- ratzearen ondorio larrienak, txirotasun narrasena, drogomenpekotasun kopuru latzena, langabeziak sortuta- ko fenotipo bitxiak, han ditugu dudarik gabe. Dena ez da Guggen- heim.*

 Mikel Soto

martxo

liburu gomendatua

Joxe Iriarte *Bikila* KAMARADAK

1980ko ekainak 25, Nervaceroko lan- gileek parlamentariak atxikitzen dituzte Bizkaiko diputazioan. 1984ko azaroak 23, Euskaldunako ontzian, poliziaren oldar artean Pablo Gonzalez langilea hiltzen da. 1992ko urtarrilak 8, bi ertzainek Mikel Uribe junkiea hilik aurkitzen dute Joseph Conraden *Ilun- peen bihotzean* liburua altzoan duela. 1985eko otsailak 7, poliziak Arantxa Lopez atxilotzen du. 1985eko martxo- aren 10ean, Aitor Intziarte *Rainbow Warrior* itsasontzian dago bomba batek eztanda egiten duenean. 1986ko martxoak 25, Guardia Zibilak Joseba Fernandez bi bala gorputzean dituela atxilotzen du.

1971ko udaberria da eta Mike- lek, Arantxak eta Josebak Peri- ko Solabarria entzuten dute: «Bada garaia aldatzeko. Ez dugu behar karitaterik, justizia baizik!». Hona hemen euskal langile herriaren borroka handi eta txikien epopeia labor bat, beste kamarada batek idatzia.



Aldaketa
otsailaren
25a
baino lehen

0506038 TXALAPARTA

NOBELA

240 or.

Salneurria 18,50€

Bazkideak 14,80€

EGILEA



Joxe Iriarte Bikila, Orereta-Erren- teria, 1945. Hemeretzi urte zituela hasi zuen militantzia politikoa ETAn. 1966an atxilotu zuten lehe- nengo aldiz, hiru urte geroago klan- destinitatera igaro behar izan zuen. 1976ko Amnistia Legearekin itzuli zen herrira eta bertako borroketa buru-belarri murgildu zen. Hedabi- deetan artikulu, iritzi eta saiakera ugari idatzi ditu. Liburugintzan, ber- riz, *¿Los obreros tienen patria?*, *Sa- torra lagun zahar horri*, *Orereta: he- rri borrokalari baten historia* (Luis Elberdinekin batera) edota *Riag en- tinak* (*Elkartasuna basamortuan*) liburuak argitaratu ditu eta, Txala- partan *Borrokaren gorrian*, *Iraul- tzen maratoia* eta *Ekaitz aroa* lanak.